



1/2016 EBAZPENA

ERABAKIA, (...) JAUNAK, (...)KO TITULARRAK, (...) ZERBITZUAREN KUDEAKETA KONTRATATZEKO PROZEDURAN IZAN DUEN JOKABIDEAREN ZUZENTASUN ETIKOA DELA ETA EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA

I. KONTSULTA

1. 2016ko azaroaren 30ean Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko gobernukideen eta goi kargudunen Etika Publikoaren Batzordera igorritako mezu elektronikoaren bidez, (...)ren zuzendariak kontsulta bat egin zuen, kargu horretan ziharduela (...) zerbitzuaren kudeaketa kontratatzekeko prozeduran izan zuen jokabidearen zilegitasun etikoa zela eta.
2. Kontsultaren osagarri, bi agiri aurkeztu zituen:

- a. Agirietako baten bidez, (...)ko Administrazio Kontseiluari jakinarazi zion zenbait kontratazio espedientetan —zehazki, (...)i buruzkoetan— uko egin eta parte ez hartzeko asmoa zuela, nola Kontratazio Mahaiaren buru hala (...)ko Administrazio Kontseiluko idazkari gisa.

Bere erabakia honako azalpen honetan oinarritu zuen: litekeena dela azaroaren 26ko 30/1992 Legean, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearenean, jasotako parte ez hartzeko arrazoietakoren bat egotea, kontratazio espediente horietan (...) enpresak parte hartuko duelako, dela lizitatzailerik gisa dela erakunde laguntzaile bezala. Izan ere, enpresa hori (...)ren talde berekoa da, eta hain zuzen azken sozietate mugatu horretan interesdunak hainbat lanpostu bete zituen Arabako Foru Aldundiko (...) Saileko (...)ren zuzendari izendatu aurretik.

- b. Beste agiria (...)ko Administrazio Kontseiluaren erabakia da, parte ez hartzeko erabaki hori onartzen duena eta xedatzen duena prozedura horietan (...)en zuzendariak ordezkaturiko duela.
3. Iritzia adierazten da interesdunak jakin nahi duelako ea, lizitazio prozedura horretan guztian uko egin eta parte hartu ez izanarekin, (...)ren zuzendari izanik, nola edo hala urratu duen Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargu publikodunen eta ordezkarien gobernu onerako kode etikoa, Diputatuen Kontseiluaren 477/2015 Erabakiaren bidez onartua.

II. APLIKAZIO ARAUAK



1. Diputatuen Kontseiluaren irailaren 3ko 477/2015 Erabakiaren bidez, onartu zen Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargu publikodunen eta ordezkarien gobernu onerako kode etikoa (GOKE, aurrerantzean), foru sektore publikoan printzipio etikoen sendotzea babesteko eta horretan buru izateko.

Kode horretan, “kargu publikodunen jokabideari” buruzko zenbait printzipio orokor jaso dira. Printzipio horiek zintzotasunaren eta gardentasunaren inguruan daude antolatuta, eta hiru arlotan proiektatzen dira: erakunde kalitatean, herritarrekiko harremanetan eta norbere etika eta jokabidean.

2. GOKEn zazpigarren idatz zatian Etika Publikoaren Batzordea sortu zen, organo independente gisa, kode horretan araututako jokabide arau, printzipio eta balioak bultzatu, sustatu, haietaz arduratu eta beteko direla bermatzeko, bai eta erakundearen irudia kaltetu lezakeen arau hauste edo okerreko jokabide orori aurrea hartzeko ere.
3. Etika Publikoaren Batzordearen eginkizunen pean izango dira honako hauek, dela hautatzen edo izendatzen diren unetik bertatik aurrera automatikoki, dela kodea onartu aurretik izendatu ziren kargudunek kontrakorik adierazi ez dutelako: foru gobernuko kideak; Arabako Foru Aldundiaren, bere erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen zerbitzura diharduten goi kargudunak eta gainerako zuzendariak; eta Gobernu Kontseiluak edo, foru sozietate publikoetan, organo eskudunek hautatutako beste pertsona batzuk, nagusiki pribatuak diren eta kapitalaren zatirik handiena pribatua duten erakundeetan edo hainbat herri administrazioen edo dagokien sektore publikoen kontrolpean dagoen beste edozein erakundetan —gaur egungo GOKeri atxikitakoetan— zuzendaritza edo administrazioko karguren batean aritzeko.

Hori dela eta, GOKE aplikagarri zaio eskatzaileari.

III. ETIKA PUBLIKOAREN BATZORDEARI IRITZIA EMATEKO AURKEZTU ZAION GAIA

1. Eskatzaileak Etika Publikoaren Batzorde honen irizpena eskatu du, (...) —bertan dihardu lanean— izapidetzen ari den kontratazio prozeduretan era pertsonal eta zuzenean parte ez hartzeko hartu dituen neurrien gainean. Izan ere, prozedura horietan lehiatzen ari da, besteak beste, (...), (...)ren enpresa taldekoa dena, eta hain zuzen azken enpresa horretan hainbat lanpostu bete zituen interesdunak, Arabako Foru Aldundiko (...)ren zuzendari izendatu zuten arte.



2. Interesdunak parte hartzeari uko egiteko erabakia hartu zuen unean, horretarako arrazoiei atxikita, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearenak, 28.2 artikuluan zerrendatu eta araututa zituen arrazoi horiek, honela:

a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean; baltzu edo erakunde interesdun bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

b) Laugarren maila arteko odol-ahaidetasuna edo bigarren maila arteko ezkontza-ahaidetasuna izatea interesdunetako edozeinekin, erakunde edo baltzu interesdunen bateko administratzaileekin, edo prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin, edo horien bulego berekoa izatea edo horiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzan.

c) Aurreko idatz-zatian aipaturiko lagunetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusiezin nabarmena izatea.

d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko moduan aritzea.

e) Gaian zerikusi zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri azken bi urteetan edozein era, baldintza eta tokitan lan-zerbitzuak eskaini izatea.

3. Nahiz eta, araua hitzez hitz oinarritzat hartuta, ulertu litekeen arrazoi horietako bat ere ez dagoela, ezta e) idatz zatikoa ere, interesdunak ez baitzuen zerbitzurik egin (...)n, baizik eta enpresa talde bereko beste sozietate batean, gogoan izan behar da jarraibide etikoak zorrotzagoak izan behar direla jarraibide hertsiki juridikoak baino. Eta aurreko paragrafoan adierazitako iritzia beste gogoeta honek osatu behar du: kargu publikodunek eta parekoek herritarrek haien zintzotasun eta inpartzialtasunaz inolako susmo edo zalantzarik ez izateko moduan jokatzeko beharraren gainean GOKEk jartzen duen arreta berezia.

Hortaz, GOKEren asmoa da saihestea pertsona edo erakunde publiko zein pribatu batzuen aldeko faboritismoaren eraginpean dagoen edo horren susmoren bat eragin dezakeen jardun edo jardunbide oro. Zehazki, kode horren hirugarren idatz zatian, foru kargu publikodunen zintzotasunari buruzko edukia azaldu da, eta zintzotasunaren funtsezko zatizat aipatzen ditu onetasun, inpartzialtasun eta objektibotasun printzipioak.



Halaber, GOKEren seigarren idatz zatiko 2. puntuko etika printzipioen artean, badago bat, agintzen duena objektibotasuna eta inpartzialtasuna izan behar dela legez onargarri diren aukeren aurrean gauzatutako jardunetan, eta interes orokorra gailendu behar dela, ezin izango delarik printzipio horren aurkako izan norberaren, familiaren, korporazioaren, bezeroen, adiskidantzazko edo bestelako inolako interesik.

Bestalde, seigarren idatz zati horren 3. puntuan, jaso da inpartzialtasun, neutraltasun eta objektibotasun printzipioak errespetatzeko betebeharra, hartara irizpide independentea eta interes partikular ororekin zerikusirik gabekoa izan dadin, horrek berekin baitakar interes partikularren baten alde egingo delako edozein susmo edo zalantza arrazoizko sorraraz dezakeen edo pertsona zein erakunde jakin batzuen aldeko faboritismo susmoren bat eragin dezakeen jardun oro saihestea.

Horrenbestez, uler liteke interes gatazka izango litzatekeela, seigarren idatz zati horretan ezarritako baldintzen arabera, baldin interesdunak parte hartu izan balu (...) zerbitzuaren kudeaketa kontratatzeko prozeduran. Baina ez da halakorik gertatu, kontsulta egileak kautela edo prebentzio neurriak hartu zituelako jakin zuenetik (...) enpresak lizitazio horretan parte hartuko zuela, eta kontratazio horretako jarduera guztietatik kanpo geratu zelako erabat. Prozedura horietatik guztiz kanpo geratu da, eta ekidin du jardun bat, zeinak eragin baitzezakeen susmoren bat edo itxura eman baitzezakeen jarduera horien bitartez enpresa erakundeei onura zuzena edo zeharkakoa eragingo zion edo ekar ziezaiokeen jarduera bat gauzatu zela, modu ez objektibatuan eta arrazoirik eman gabe.

4. Horregatik, Etika Batzorde honen iritziz, interesdunak, parte hartu ez duenez (...) esleitzeko prozeduran eta prozedura horretako gorabeherak jakin nahi izan ez dituenek, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargu publikodunen zuzentasun instituzionaleko sistemarekin zorrotzen bat datorren jarrera erakutsi du, hartu duen neurria baita GOKEren izaera eta helburuari ondoen egokitzen zaiona.

Horregatik guztiagatik, Etika Publikoaren Batzordeak, aho batez, honako hau ebatzi du:

EBAZPENA



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko gobernukideen eta goi kargudunen Etika Publikoaren Batzordea

Comisión de Ética Pública de los miembros del Gobierno y altos cargos del sector público foral del Territorio Histórico de Álava

Interesdunak Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoko kargu publikodunen eta ordezkarien gobernu onerako kode etikoarekin bat etorritz jardun duela, ez baitu parte hartu (...) kontratatzekeko prozeduraren ebazpenean eta ez baitu nahi izan prozedura horretako gorabeheren berri izaterik.

Izpta.: Cristina González Calvar
BATZORDEBURUA

Izpta.: Nekane Zeberio Ganzarain
BATZORDEKIDEA

Izpta.: Javier Garaizar Candina
BATZORDEKIDEA

Izpta.: Fernando Salazar Rodríguez de
Mendarozqueta
BATZORDEKIDEA

Gasteiz, 2016ko abenduaren 12a